Aurretik azaldutako arauetatik ondorioztatzen da, desadostasunak konpondu eta behin-behineko onarpena eman ondoren, mugarritzea eta mugaketaren behin betiko onarpena egingo direla. Horretarako ez da eragozpena izango desadostasunak irauteak, hori konpontzeko betiere zabalik egongo baita bide jurisdikzionala, administrazio bidea agortu eta gero.

Kasu honetan, eta behin-behineko onarpenaren ondorioz, mugarritzea egin da. Beraz, otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 42.4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, mugaketaren behin betiko onarpena egin behar da.

Aurretik esandakoarengatik, maiatzaren 20ko Diputatuen Kontseiluaren 42/2008 Foru Dekretuan, Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duenean, xedatutakoaren arabera, eta Diputatu Nagusiaren uztailaren 19ko 162/2011 Foru Dekretuan, Arabako Foru Aldundiaren Sailak zehazten dituenean, ezarritakoaren arabera, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz,

XEDATU DUT

Behin betiko onarpena ematea Etxegoiengo dermioan Aiarako eta Amurrioko udal barrutien arteko mugaketari, jurisdikzio muga 1927ko aktaren arabera ezarriz, halako eran non muga bi udalerri horiek banatzen dituen bidean finkatuta geratuko den, Institutu Geografiko Nazionalaren 2011ko urtarrilaren 24ko txostenaren 2.11 dokumentuan islatzen duen moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 3a.– Toki Administrazioaren Saileko foru diputatua, JAVIER RUIZ DE ARBULO CERIO.– Toki Administrazioaren zuzendaria, LORENZO ARNAIZ ARMENTIA.

De la regulación más arriba transcrita resulta que, tras la resolución de las discrepancias y la aprobación provisional, se procederá al amojonamiento y a la aprobación definitiva del deslinde, sin que a ello sea obstáculo el mantenimiento de las discrepancias, para cuya resolución siempre queda expedita la vía jurisdiccional, una vez agotada la administrativa.

En el presente caso y como consecuencia de la aprobación provisional, se ha llevado a cabo el amojonamiento, por lo que, de acuerdo con lo dispuesto en el transcrito artículo 42.7 de la Norma Foral 4/2011, de 21 de febrero, procede llevar a cabo la aprobación definitiva del deslinde.

Por cuanto antecede, conforme a lo dispuesto en el Decreto Foral 42/2008, del Consejo de Diputados de 20 de mayo, que aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial, así como lo establecido en el Decreto Foral 162/2011 del Diputado General, de 19 de julio, por el que se determinan los Departamentos de la Diputación Foral de Álava y en ejercicio de las facultades que me otorga el artículo 40 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre,

DISPONGO

Aprobar definitivamente el deslinde entre los términos municipales de Amurrio y Ayala, en el término de Etxegoien, estableciendo el límite jurisdiccional conforme al Acta de 1927, de tal forma que el límite quedará fijado en el camino que separa ambos Municipios en la forma reflejada en el documento 2.11 del informe del Instituto Geográfico Nacional, de 24 de enero de 2011.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de julio de 2012.– El diputado de Administración Local, JAVIER RUIZ DE ARBULO CERIO.– El director de Administración Local, LORENZO ARNAIZ ARMENTIA.

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

MENDI ZERBITZUA

**4161**

**342/2012 FORU AGINDUA, uztailaren 6koa, Arabako lurralde historikoko toki jakin batzuetan sua erabiltzea salbuespen gisa eta aldi baterako debekatzen duena eta nekazaritza eta basogintza lanei buruzko gomendioak egiten dituena.**

Zoritxarrez, udaroko kontua da baso suteen eta horiek kiskalitako lurren kopurua areagotzea. Izan ere, sasoi horretan tenperaturak gora egiten du eta euriak behera eta horren ondorioz hezetasunak ere bai; horrez gain, eguzki orduak ere gehiago dira, eta horrek guztiak berekin dakar landareek hezetasuna galtzea eta sute arriskua areagotzea.

Arrisku egoera horrek aparteko erresalbuzko neurriak hartzea gomendatzen du, suteak saihesteko eta, ondorioz, haiek eragiten dituzten kalteak, zenbaitetan konponezinak, gutxitzeko. Neurri horiek sutearen erabilerari ez ezik emaitza sutea izan dezaketen guztiei ere eragingo die, hala nola, labore bilketari, nekazaritza eta baso lanei, aisiari...

Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 65. artikuluak eta Mendien Legearen 44. artikuluak baimena ematen diote Arabako Foru Aldundian mendien alorrean eskumena duen sailari suteak eragin ditzaketen jarduerak arautzeko, bai eta, eguraldia edo beste zergati arrazoitu batzuk direla eta, aldi batean landa ingurunean suaren erabilera debekatzeko ere, nahiz eta sua egiteko egokitutako tokian izan.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Ohiz kanpokoa bada ere, 2012ko uztailaren 13tik aurrera aldi baterako debekatzea sua erabiltzea landa ingurunean.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

SERVICIO DE MONTES

**4161**

**ORDEN FORAL 342/2012 de 6 de julio por la que se prohibe de manera excepcional y con carácter temporal del uso del fuego en determinados lugares del Territorio Histórico de Alava y recomendaciones durante la ejecución de trabajos agroforestales.**

El aumento del número de incendios forestales y de la extensión calcinada por los mismos es, por desgracia, una constante durante los meses de verano; periodo que se caracteriza por un aumento de las temperaturas ambientales, por la disminución de las precipitaciones y de los porcentajes de humedad del aire y por la mayor duración de las horas solares, factores todos que inciden de forma directa en la pérdida de humedad de los vegetales y en el aumento de los índices de riesgo de incendio.

Esta situación de riesgo aconseja la adopción de medidas cautelares extraordinarias encaminadas a evitar el inicio de los incendios y consecuentemente reducir los daños, algunas veces irreparables, que causan. Medidas que afectarían, no sólo al uso y manejo del fuego, sino a todas aquellas actividades que puedan dar lugar a un incendio, como son la recolección del cereal, los trabajos agroforestales, las actividades de ocio, etc.

El artículo 65 de la Norma Foral 11/2007, de 26 de marzo, de Montes y el artículo 44, de la Ley de Montes, autorizan al Departamento competente en materia de montes de la Diputación Foral para regular aquellas actividades que puedan originar el inicio de un incendio, así como, por razones climáticas u otras causas justificadas, prohibir temporalmente el uso del fuego en el medio rural, incluso en los lugares habilitados para ello.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Prohibir de manera excepcional, desde el 13 de julio de 2012, y con carácter temporal, el uso del fuego en todo el medio

Landa ingurune izango dira Arabako lurralde historikoko ondorengo tokiak:

Edozein motatako landa lurzorua.

Mendi publiko zein pribatuak.

Parke naturalak.

Parke probintzialak eta aisiaguneak.

Foru edo toki sareko errepideetako atsedenguenak.

Aipatutako tokiotan ezin izango da inon surik egin, batzuk, erregailuak, barbakoak edo beste zenbait instalazio, nahiz egonkor nahiz mugikor, dituztelako, sua egiteko badira ere.

Bigarrena.- Su egiteko debekua salbuespenezkoa izango da eta aldi baterako iraungo du, eta indarrean egongo da harik eta eraginik gabe utzi arte, meteorologian aldaketaren bat egon delako.

Hirugarrena.- Arlo horri buruz Zigor Kodeak xedatutakoak aplikatzeko eskumena gorabehera, foru agindu honetan arautako debekuak hausteak Mendien Foru Arauaren 69. artikuluan xedatutakoaren araberako zigorra izango dute. Halakoetan, isuna, gehienez, 1.000 eurokoa izango da eta horrez gain eragindako kalteak ordaindu beharko dira.

Laugarrena.- Sua erabiltzeko debekua ez dago zertan bete suari aurre hartzeko edo sua itzaltzeko lanetan.

Bosgarrena.- Basozainei agintzea foru agindu honetan xedatutakoa betetzen dela zaintzea, bai eta Toki Administrazioaren Sailaren edo Ingurumen eta Hirigintza Sailaren mendeko ez diren barbakoak edo sua egiteko jarritako instalazioak zigilatzea ere.

Seigarrena.- Toki Administrazioaren Sailari eta Ingurumen eta Hirigintza Sailari eskatzea beharrezko neurriak har ditzala, beren eskumenpeko aisiaguneetan foru agindu honetan xedatutakoak bete daitezen.

Zazpigarrena.- Gomendatzea sutea eragiteko arriskua duten jarduerak egitean arreta areagotu dadila, bai eta, ingurumen egoera desegokia bada, bero handia egiten duelako, haize indartsua dabilelako edo hezetasuna apala delako, jarduera horiek debekatu daitezela ere. Hona hemen horiek: makina erabiltzea ezinbestekoa duten nekazaritza eta baso lanak, labore bilketa, mendietako sastrakak kentzea, nekazaritza eta baso hondakinak birrintzea... Hartu beharreko neurrien artean, traktorean edo lanerako makinan bizkar zorro keztatzaile urez betea izatea gomendatzen da, bai eta sute guneak itzaltzen lagundu dezakeen patina ere.

Zortzigarrena.- Ingurumen egoera ez da berdina Arabako lurralde historiko osoan; beraz, arrisku egoera ere ez. Hori dela eta, salbuespen gisa, arrazoituta eta mendien alorrean eskumena duen foru aldundiko sailak ikuskatu eta berariaz baimendu ondoren, baldintzapean eta erakunde, organo, sail edo zerbitzu erantzuleak eskatuta, baimendu ahal izango da lurralde historikoko halako aisiagune edo parketan erregailuak erabiltzea.

Bederatzigarrena.- Foru agindua ondokoei jakinaraztea: Arabako toki erakundeei, Ertzaintzari, miñoiei, basozainei, UAGAri, nekazari eta abeltzainen elkarteei, baso elkarteei, Arabako ehiza esparruen elkarteei, parke naturaletan zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresei, Arabako Mendi Federazioari eta Gobernuaren Arabako Ordezkariordetzari. Halaber, agintaritzaren agenteei eta toki erakundeen agintariei eskatzen zaie foru agindu honetan xedatutakoak betearaz ditzatela eta hartan gomendatu eta debekatutakoak herritarrei jakinaraz diezazkietela”.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 6a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.- Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria, BELÉN ECHEVERRÍA GOITIA.

rural, que incluye los siguientes lugares del Territorio Histórico de Alava:

Suelo rural de cualquier clase.

Montes públicos o de particulares.

Parques Naturales.

Parques Provinciales y Locales de Esparcimiento.

Areas de descanso de las carreteras de titularidad provincial o local.

La prohibición de uso de fuego comprenderá la totalidad de la extensión superficial de estos lugares, incluso los habilitados para ello, tales como asadores, barbacoas o cualesquiera otras instalaciones, fijas o portátiles, destinadas a la realización de fuego.

Segundo.- Está prohibición tendrá carácter extraordinario y temporal y se mantendrá en vigor hasta que se deje expresamente sin efecto como consecuencia de un cambio en las condiciones meteorológicas.

Tercero.- Sin perjuicio de la aplicación de las previsiones del Código Penal en esta materia, las infracciones de la prohibición contenida en esta Orden Foral serán sancionadas de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 69 de la citada Norma Foral de Montes, con multa de hasta 1.000 € y el pago de los posibles daños y perjuicios que pudieran causar.

Cuarto.- La prohibición del uso del fuego, no será de aplicación en las labores que se realicen para la prevención o extinción de los incendios.

Quinto.- Encomendar a la guardería forestal la vigilancia de lo dispuesto en esta Orden Foral y el precintado de las barbacoas o de cualesquiera otras instalaciones destinadas a la realización de fuego no dependientes de los Departamentos de Administración Local y de Medio Ambiente y Urbanismo.

Sexto.- Solicitar a los Departamentos de Administración Local y de Medio Ambiente y Urbanismo la adopción de las medidas necesarias para el cumplimiento de esta Orden Foral en las áreas recreativas de su competencia.

Séptimo.- Recomendar que durante la ejecución de aquellas actividades que impliquen un riesgo potencial de incendio, como son los distintos trabajos agroforestales con utilización de maquinaria, cosecha de cereal, trabajos de desbroce en montes, triturado de restos agrícolas y forestales, etc. se extremen las medidas de precaución, incluso llegando a suprimirlos cuando se den condiciones ambientales adversas, con altas temperaturas, fuerte viento y baja humedad ambiental. Entre las medidas a adoptar, se aconseja disponer de una mochila fumigadora con agua en el tractor o maquinaria de trabajo, así como una cisterna que pudieran ayudar a sofocar un brote de fuego.

Octavo.- Dadas las distintas condiciones ambientales que se suceden a lo largo del Territorio Histórico de Álava, que dan lugar a distintas situaciones de riesgo, excepcionalmente, de forma justificada, y previa inspección y autorización expresa del Departamento competente en materia de montes de la Diputación Foral, podrá autorizarse de forma condicionada y a petición del responsable de la Entidad, Organismo, Departamento o Servicio, la utilización de los asadores de alguna de las áreas o parques recreativos existentes en el Territorio Histórico.

Noveno.- Notificar la presente Orden Foral a todas las Entidades Locales Alavesas, Ertzaintza, Miñones, Guardería Forestal, UAGA, Asociaciones de Agricultores y Ganaderos, Asociaciones Forestalistas, Asociaciones de Cotos de Caza de Alava, Empresas que gestionen servicios en los Parques Naturales y Federación Alavesa de Montaña, así como, a la Subdelegación del Gobierno en Alava, solicitando que se dé la máxima difusión entre los ciudadanos de las recomendaciones y prohibiciones establecidas y encomendando especialmente a los agentes de la autoridad y a las autoridades de las Entidades Locales que velen por su cumplimiento”.

Vitoria-Gasteiz a 6 de julio de 2012.– Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.– Directora de Medio Ambiente y Urbanismo, BELÉN ECHEVERRÍA GOITIA.